

45. zenbakia, 2001eko maiatzaren 11
IARBUN ELKARTEA

Bergarako astekarria

Berrigara



Udaleko brigada


Lorezainak, igeltseroak, argiketariak...

Bergara preferentia jaitsi da | Cool Panic taldeak ekaineko diskoa kaleratu

Deportibo baten **2** eserleku dituzu.

Auto baten **5** eserleku dituzu.

Opel **Zafira** da bere mailan
7 eserleku dituen bakarra.



Opel Zafirak automobilaren kontzeptua bere osotasunean aldatu du. Kanpoaldetik, auto familiar baten tamaina berbera dauka. Barrualdean bizitasunez beteta dago, **7 eserleku** dauzka eta eserlekuok itxuraldatzeko aukera ugari ditu, zure familia eta lagunen beharretara egokitzeko. Opel Zafira, zure planak bezain malgua.



Opel **Zafira**. 7 aldiz malguagoa.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1, 2, 3, aukerak: *Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.*

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HEI BIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86



Errealitate poliedrikoa

Xabier Azkoitia / Apaiza

Oraindik kirioak dantzan dauzkadan honetan, Zaragozako azken atentatuaren oihartzuna barrerean dudala, hasiera ematen diet idazteran noan lerrotxo hauei. Egia esan bart idazten hasi behar nuen, baina Bergara bidean nentorrela kotxeko irratitik heldu zitzaidan albistea, eta zentzudun izatearren 24 ordu pasatzen utzi behar izan ditut, era horretan, apur bat besterik ez bada ere, burua lasaitu eta ideiak tolestu ondoren, hauek burutik bihotzera eta handik behatz muturretara bidaiatu daitezten.

Ez dakit, eta ziur asko ez dut jakingo, hau irakurriko duzuenok nola bizi izaten dituzuen antzeko egoerak. Niri, egia esan, gorputza eta adimena blokeaturik gertzen zaizkit. Ia ez naiz gai ezertxo ere egiteko hurrengo egunean. Eta ondorengoetan ere kosta egiten zait. Aspaldi da amorrua, haserrea edo antzeko sentimenduak ez zaizkidala sortzen, aldiz izugarrizko tristura eta ezinegona da sortzen zaidana eta amaigabeko pena pizten zait.

Pertsona bat hiltzen denean ez dira bakarrik bere ideiak hiltzen, bere pertsona eta izate osoa hiltzen da. Pertsona bat erailtzen denean ez zaizkio bere ideiak bakarrik kentzen, bizitza osoa kentzen zaio, izan zena, orain dena eta izango ze-

na ere kendu egiten zaio, den-dena lapurtu eta kentzen zaio. Une horretatik aurrera ez da gehiago ezer izango.

Analisi politiko edo estrategikoak egin beharrean nire burua beste esparru batzuetatik murgiltzen da une horietan, eta jakin egin nahiko nuke zer darabilen bere buruan norbait hiltzeko agindua eman duen horrek; jakin egin nahiko nuke zer sentitzen duen bere erraietan eraileak; umezurtz eta alargun geratu berri direnen bihotz taupadak eta malkoek eragiten duten zotinak zein zapore itogarria duen jakin nahiko nuke; etxetik alde egin eta ihesean bizi denaren amaren eta aitaren amets gaiztoak ikusi nahiko nituzke, bere semea edo alaba izan denaren beldurrez; egoera berdinean egon diren guztien bihotzerre mingotsa usaindu nahiko nuke;

«Aspaldi da amorrua, haserrea edo antzeko sentimenduak ez zaizkidala sortzen. Izugarrizko tristura eta ezinegona da sortzen zaidana, amaigabeko pena»

espetxeko zuloan edo dispersioaren atzaparretan bizi direnen behelaiño itsugarrian argi izpirik biztu egiten duen gertatutakoak jakin nahiko nuke; alderdi politikoetako buruek eta komunikabideetako editorialak idazten dituztenek esaten dituztenak edo idazten dituztenak esan eta idatzi ondoren, oheratzerakoan, hildakoa-ren argazkiari begietara begiratzeko gai izango ote diren jakin nahiko nuke.

Itxura batean, ez omen naiz gau honetan lo egiteke dagoen bakarra. Gertatutakoak askori, dirudienez, loa kendu edo zaildu egin digu. Errealitate poliedriko honen aurpegi ezberdinak begiratu eta dastatuz, batzuk eta besteok, une honetan bertan izango gara, baina elkarri begiratzeko gai ez, elkarri entzuteko gai ez, elkarrekin hitz egiteko ere ez.

Lerro hauek zuen begi ninietara heldzen direnean, ostiral ilunabarra edo larunbat goiza izango da, hain zuzen, hausnarketa egunaren barruan murgildurik izango gara, beraz norbaitek hau irakurri badu, espero dut lagungarri izan dakiola bere hausnarketarako, eta honaino heldu bazara, irakurri duzun seinale izango denez, opa nahi dizut behatzetatik askatu egingo den txarteltxo burutik eta bihotzetik abiatu ondoren atera dadila.<

barruan



Alberto Santana

Historialaria

«Ez dakigu zein den Euskal Herriko baserriaren antzinatasuna»

6.



M. Jesus Urriategi

Urriategi estankua

«Mendixa gustatzen jat; forofia naiz. Orduak eta orduak ibilliko nintzake mendixan»

19.



Iker Azagirre

Pilotaria

«Aurrean jokatzean, errematatzea gustatzen zait, eskumarekin zein ezkerrekin»

21.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Ikerketa. Zentro teknologikoen fundazioa. Goi mailako tituludunak. Ikerketa teknologikoko heziketa beken XXII. deialdia. Epea: ekainak 1
Berrikuntza. Zentro teknologikoen fundazioa. Erdi mailako tituludunak. Berrikuntza teknologikoko heziketa beken IV. deialdia. Epea: ekainak 1

JARDUERAK

Udalekuak 2001. II. zozketa. Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoendako. Lehen zozketan izena eman zutenek, 943 482111 telefonora deitu. Lehen zozketan izena eman ez zutenek: Gazte Informazio Gunea (Bergarako kultura etxea) edo <http://www.gipuzkoa.net/oporraldi>. Epea: maiatzaren 10etik 16ra.
Irratia. Otxoki Komunikazioen Elkarte. II. "Irratia bizi ezazu", maiatzaren 11tik 17.00etan, Donostiako Teknologia Parkeko (Miramon) auditoriumean.
Txotxongiloak. Barañaingo Udala. Barañaingo VII. txotxongilo jaialdia (Nafarroa). Epea: maiatzaren 7tik 25era.

IKASTAROK

Ingurumen heziketarako begiralea. Haizelan. Urrutiko ikastaroa. Lau hilabete. Argiztapena. Errenteriako kultura etxea. Argiztapen eszenikoaren gaineko ikastaroa. Teoria eta praktika. Epea: maiatzak 15.

SARIAK

Kartelak. Bertsotzale Elkarte. 2001eko bertsolari txapelketarako kartela: "Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001". Epea: maiatzak 25.
Nafarroako VIII. ikus-entzunezko sorkuntzen lehiaketa. Nafarroako gobernua. 1999ko urtarillaren ondoren eginiko lanak arukezko dira. Epea: abuztuak 31.

LAN ESKAINTZAK

Teknikariak. Espainiako Bankua. Lizenziadunak. Lehiaketa, 13 lanpostu betetzeko: teknikari lanak, kontu-ikuskaritzan eta kanpo-ikuskaritzan. Epea: maiatzak 18.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.


OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteiei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Besakara

1. Besakada, besoak bete gauza.
– *Joan txabolara ta besakara bat egur ekarri.*
2. Beso kolpea.
– *Egundoko besakaria bota najotsan pelotiai ta kale.*



hau giroa!

San Juan uzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Maiatzak 3, eguna	16 °C	6 °C	– l/m ²
Maiatzak 4, egubakoitza	12 °C	5 °C	13,4 l/m ²
Maiatzak 5, zapatua	11 °C	8 °C	4,9 l/m ²
Maiatzak 6, domeka	11 °C	5 °C	2,9 l/m ²
Maiatzak 7, astelehena	10 °C	7 °C	0,6 l/m ²
Maiatzak 8, martitzena	15 °C	8 °C	– l/m ²
Maiatzak 9, eguaztena	22 °C	8 °C	– l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 11:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

ZAPATUA 12:

MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

DOMEKA 13:

MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

ASTELEHENA 14:

ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

MÁRTITZENA 15:

MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

EGUAZTENA 16:

CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74

EGUENA 17:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

OGIA

DOMEKA 13... Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa... 943 76 62 46

Ertzaintza... 943 76 53 40

Osasun Etxea... 943 76 24 40

Asepeyo... 943 76 16 43

Pakea... 943 76 13 49

Angiozarko medikua... 943 78 90 27

Antzuolako medikua... 943 76 62 23

Odol emaleak... 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea... 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea... 943 76 62 46

Udal Artxiboa... 943 77 91 32

Igerilekuak... 943 76 20 51

Kultur Etxea... 943 77 91 58

Liburutegia... 943 77 91 62

Kiroldegia... 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia... 943 76 14 92

Erregistroa... 943 76 13 15

Jardun... 943 76 36 61

Idolaz... 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara... 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk... 943 76 62 71

Postetxea... 943 76 26 85

Bedelkar... 943 76 04 68

Akulu AEK... 943 76 05 18

Udal euskaltegia... 943 76 44 53

Bergarako notaritza... 943 76 10 73

oharrak

■ **1963an jaiotako**
bazkaria. Maiatzaren 19an To-
rrekoa jaiotzeko. Egun horretan
San Martin plazan elkartuko dira,
13:00etan. Izena ematea Ariznoa
tabernan hilaren 15a baino lehen.

■ **1949an jaiotako**
bazkaria. Tartufo jaiotzeko
maiatzaren 19an. Izena ematea
Tartufo jaiotzeko.

■ **1942an jaiotako**
afaria. Maiatzaren 19an Azepeixi
jaiotzeko, 21:00etan. Aurretik
meza izango da Santa Marinaran,
19:00etan. Izena ematea (2.000
pezetako depositoa) Mizpildi
okindegian, Edel tapizdendan edo
Azepeixi jaiotzeko.

■ **Xipizaro ludoteka.**
Udalekuetan begirale izateko
izena emateko epea maiatzaren
18ra arte izango da zabalik,
17:15etik 19:30era, San Martin
plazako lokalean. 18 urte izatea
beharrezkoa da. Argibideak
943 76 23 76 zenbakian.

■ **San Joxepe.** Jubilatuen
elkarreak maiatzaren 23an
Biasterira joateko irteera antolatu
du. Izena ematea maiatzaren
16a baino lehen San Joxepe
elkartean. Argibideak
943 76 21 40 zenbakian.

■ **EH.** Egubakoitzean, hilak 11,
mitina San Martin plazan,
20:00etan.

zorionak!



Mireia Ibabe
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, aitona-
amonak eta Olatz.



Ander Barruso
12an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Sara Arietaleaniz
11n 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak; batez ere,
Jokin.



Gotzon Jimenez
11n 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ander Franco
16an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Asier Mujika
15ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Karmelo Altuna
13an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ekaitz Regorico
14an 9 urte.
Urte askotarako!
Idoia eta
familiakoak.



Ander Asula
14an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Aritz Maiza
11n urtebete.
Urte askotarako!
Pedro Jose eta
Jennifer.



Iñaki Berroia
12an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta
lagunak.



Jabi Corchero
14an 32 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Julen Santamaria
11n 13 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Maika Gallastegi
14an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Nekane Eskibel
13an 38 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Maite Elorza
14an 7 urte.
Urte askotarako!
Josu eta etxeokak.

jardunen agenda

■ **Hitzaldiak.** Euskararen
zibilizazioa, Alfontso Martine-
zen eskutik, maiatzaren 16an,
19:00etan kultura etxean.

■ **Jolasleku ibiltaria.** Lehen
Hezkuntzako haurrei zuzendua.
Maiatzaren 18an, 17:00etatik
aurrera Espoioan.



Ion Pueyo
14an 12 urte.
Urte askotarako!
Borja, Iosu eta
etxeokak.



Mikel Lasa
11n 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Noelia Murillo
11n 26 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Toño.



**Arantxi
Etxebarriarteun**
15ean urteak. Urte
askotarako! Asier,
Amaia eta ama.



Patxi Larrañaga
17an 59 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.

*Hurrengo alean,
maiatzaren
18tik 24ra
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko
ditugu.*

EDERGAI

Negozia ixteko, likidazioa **pinturarako gaietan eta markoetan**

%30 eta %50

Horrelako aukerarik, inon ez!

Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

Historialari eta UNEdeko irakasle da Alberto Santana. San Xosepe elkartek antolatu duen Bergarako artearen historiaren gaineko lehen hitzaldia egin zuen eguenean. Bergarako baserria landu zuen.

G. Zein da Bergarako baserrien aipamen dokumental zaharrena?

E. Dokumentu zaharrenek XIV. mendeko baserri batzuk aipatzen dituzte: hamasei, 1391. urteko dokumentu batean. Besteak beste, baserri hauek aipatzen dira: Mekolalde Azpikoa, Mekolalde Torre, Gallastegi Torre, Amutxastegi Zahar eta Gaztelu Goikoa. Hamasei horiez gain, beste asko ere bazen garai hartan. Gaur egun ezagutzen ditugun baserrien %80 garai hartan ere bazeudela uste dugu.

G. Ez dira, baina, XIV. mendetik zutik dirautenak.

E. Ez, Bergaran ez dago garai hartako baserririk. Kopapena bera da, hau da, lehenagoko baserrien gainean eraikitako berriagoak dira gaur egungoak.

Baserri zaharrenek, Mekolalde edo Jauregik, esaterako, ia bostehun urte dituzte. Gauza bat etxea da, eta bestea orubea.

Begarako baserrien antzinatasuna baserriaren antzinatasun bera da. Ez lehenagokoa ez geroagokoa.

G. Noizkoa da baserria?

E. Ez dakigu zein den Euskal Herriko baserriaren antzinatasuna. Ez dago bostehun urte baino zaharragoa den eraikinik, inon ez.


Begararak ia bostehun urteko baserri kopuru polita du; lehenengo urratsetan, baserriaren arkitektura nolakoa zen adierazteko balio duen baserri multzo polita.

G. Hala ere, auzoa osa-

ALBERTO SANTANA

Historialaria

«Ez dakigu zein den Euskal Herriko baserriaren antzinatasuna»



Alberto Santanak UNEDen historia eskolak ematen ditu.

tzeko ideia zaharragoa da.

E. Bai. Murinondo, Basalgo, Aldai... Aspaldiko auzoak dira. Badakigu duela mila urte auzo horiek bazirela, eta postura egingo nuke mila eta bostehun urte badituztela.

G. Nola sortu ziren baserri haiek?

E. Ogian eta sagardoan oinarrituta; sagardoan, ba-

tez ere. Bergarako baserri zaharrenek sagardoan oinarrituta eraiki zituzten. Guztiek dute barruan sagardo egiteko dolare handia. Nahiz eta gaur egun, askok hori jakin ez. Garai hartan ez zegoen patatarik, artorik... sagardotik bizi ziren.

Artoa heldu zenean, XVII. mendean geroztik, baserri mota aldatu egin zen eta bizitzeko era ere bai. Izan ere, artoa heldu eta gordetzeko, baserrian toki aproposa eraiki beharra izan zuten. Toki handi eta irekiak. Orduan hasi ziren arkodun baserriak eraikitzen, Amuskibar, esaterako. Horrek Euskal Herri osoan eragin zuen, jakina. Baina inork ez zuen Oñati, Antzuola eta Bergarak bezain ondo egin. Euskal Herri osoan dauden 40.000 baserrien artean, esfortzu eta kostu handiena izan zutenak, eta ondoen funtzionatu zutenak Bergarakoak dira.

G. Bizitzeko eran nola eragin zuen?

E. Baserriak erosoago bihurtu ziren. Gelak bereizten hasi ziren: ume txikiak, nagusiagoak eta gurasoak gela ezberdinetan lo egiten hasi ziren. Bakanen batek ere tximinia jarri zuen, eta hori garai hartan goi mailako teknologia zen.

Baserriaren urrezko garai hura maiorazko handien garaikidea da. Ordu arte familiak baserriaren jabe baziren, XVIII. mendetik aurrera kaleko jauntxoek erosi egin zituzten, eta baserrien %70en jabe egin ziren. Gaur egun, egoerak berriro buelta eman du.

G. Baserriaren azken belaunaldiaz berba egin daiteke?


E. Guregana heldu dena da. Eta haren memoria gure nagusiek dute. Memoria partziala da: baserri eta industrietatik bizi izan direnena.

«Begarako baserrien aipamen dokumental zaharrena 1391. urtekoa da. Baina ez dago 500 urte baino gehiagokorik»

Droga legalak nahiko hedatuak daude herriko gazteen artean

Udalak 12 eta 18 urte artekoen droga kontsumoari buruzko azterketa egin du

Siadecori agindutako azterketa horren helburua, prebentzioa da. Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko 535 gaztek hartu dute parte azterketan, eta oro har, tabakoa, alkohola eta porroaren kontsumoa nahiko hedatua dagoen arren, anfetamina, kokaina eta pilulak bezalako legez kanpoko drogen kasuan, kontsumoa ez da %3 baino handiagoa.



Udaleko ordezkariak eta Siadecoko teknikaria azterketaren berri ematen.

Udalaren aginduz, 535 gazteren artean egin du Siadecok azterketa. Guztiak 12 eta 18 urte bitartekoak, eta hiru helburu nagusi ditu: batetik, droga kontsumoaren hedapena estimatzea; bestetik, drogaren kontsumoan eragiten duten faktoreak azaltzea; eta azkenik, aurrera begira, udalak droga-menpekotasunen pre-

bentziorako kontuan izan beharreko lan esparruak planteatzea.

PORRO NAHIKOA

Azterketaren emaitzei dagozkionez, Bergarako gazteen artean nahiko hedatua dago tabakoa, alkohola eta porroaren kontsumoa. Baina, oro har, kontsumoaren datu

orokorrak, EAEn 1996an jasotako antzerakoak dira; nahiz eta Bergaran porroaren kasuan kontsumo handiagoa nabaritu den.

Droga ez legalak, aldiz, gutxi kontsumitzen dituzte.

Adinaren kasuan, 14 urterekin hasten dira legezko drogak hartzen normaltasunez, eta adinean gora egin

ahala, kontsumoak gora egin du nabarmen.

EMAITZA KUALITATIBOAK

Drogaren kontsumoan eragiten duten faktoreei dagozkionez, honakoak dira, besteak beste: gurasoekin komunikazio eza, nagusien erreferentzia, eskoletan batez ere, lagunartean drogak kontsumitzea, eta drogak eskuratzeko erraztasuna.

Alkohola eta tabakoaren kasuan, bestalde, gazteek ez dituzte benetako droga bezala hartzen. Gainera, gazteentzat arazoa ez da drogak kontsumitzea, neurritz eginez gero; arazoa kontsumoak norbere kontrolatik ihes egitea da.

Honekin guztiarekin, prebentzioari dagokionez, lan esparru hauek proposatu ditu Siadecok, besteak beste: familia, ikastetxea, aisialdia, elkarteak.


Domekan 12.736 lagunek bozkatzeko aukera

Datorren domekan, hilak 13, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak egingo dira. Bergararren kasuan, 12.736 lagunek izango dute botoa emateko aukera; 200ek lehenengoz.

Hauteskunde-mahaiak 09:00etan irekiko dituzte, eta 20:00etan itxi. Denera, 18 mahai egongo dira: 8 Seminarioan (Aranzadi ikastolan), 4 Matxiategin (Aranzadi ikastolan), 4 Martokan (eskolan), bat Ibarra (es-

kola zaharrean) eta beste bat Osintxun (liburutegian).

Debagoieneko emaitzen berri izateko, Goienkariak gehigarri berezia kaleratuko du hilaren 14an. Zortzi orrialdetan herriz herrikako emaitzak jasoko ditu; baita hainbat adituren balorazio eta iritziak ere. Doan eskuratu ahal izango duzue honako toki hauetan: ikastetxe, lantegi, denda eta ohiko egunkari salmenta tokietan.



Hamazortzi mahai egongo dira bozkatzeko, ohiko tokietan.

ARTXIBOA

Udalak erositako erraldoi bikote berria aurkeztu dute

Joan den eguaztenean aurkeztu zituzten Santa Ana parkean udalak erosi berri dituen bi erraldoiak. Dagoeneko horren ezaguna dugu baserriar erraldoi bikotea osatzera dator bikote berria. Hauek, hala ere, kaletar dotoreak dira; XIX. mende hasierako kaletar dotoreak, hain zuzen ere.

Argazkian ikus daitekeen bezala, emakumezkoak garaiko soineko dotorea darاما, eta poltsoa eskuan. Gizonezkoak, trajea eta txisterra. Orduko janzkera irudikatzen, Eulalia de Abaitua argazkilaria irudietan oinarritu dira egileak, Kuku-ma taldeko kideak.

Erraldoi bakoitzak 35-40 kilo inguru pisatzen ditu,



Jauntxoaren gisa, Santa Anako jauregiaren aurrean erraldoiak.

eta altueran hirutik gora metro dauzka.

Dauden sei buruhandiek ere erropa berria estreinatuko dute. Buru bakoitzari adierazten duen pertsonaiari dagokion jantzia egin diote.

Erraldoi bikote berria Pazkuetan estreinatuko dute, domekan antolatuta duten erraldoi, buruhandi eta kili-kien alardean. Arrasate eta Oñatiko konpartsek ere parte hartuko dute.

Kontribuzioa ordaintzeko epea aldatu egin dute

Orain arte irail hasieran ordaintzen bage-nuen ere, aldatu egin dute ordaintze data. Aurten, maiatzaren 15ean hasi eta uztailearen 2ra arte ordaindu behar dugu kontribuzioa. Aldaketaren arrazoia da balio katastral berrien jakinarazpena udazkenean egin behar dela. Horrela, balio katalalrak eta kontribuzioak batera ez izateko, aldatu egin dute azken horren ordaintze epea. Datorren urteari begira, seguruenik, aurtengo epealdi berrian ordaindu behar da kontribuzioa, baina oraindik zehaztu barik dago.

Kontribuzioa ordaintzeko epea aldatu egin dela eta, herritarrak ohartarazi nahi izan ditu udalak: ordainketa Kutzan helbideratuta dituzten herritarren kasuan, karguak ekainaren hasieran izango dira. Gainerako banketxeetan ere antzera izango da. Kontu korrontean dirurik egon ezean, abisua etxera helduko zaie.

Helbideratu barik daudenen kasuan, ordainagiria etxera helduko zaie, eta ordaindu ezean, abisua ere bai.

Kale bilkura San Martin plazan

Astelehenean, ehun lagun inguruk kale bilkura egin zuten San Martin plazan, 12:00etan. Domekan, hilak 6, Zaragozan izandako atentatua salatzen egin zuten bilkura. Atentatuan, Manuel Gimenez Abad Aragoiko PP-ko presidentea hil zuen us-tez ETAk, bizkarrean eta buruan tiro eginez.



Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Berasategi aske eta Agirrek bi urteko kartzela zigorra

Astlehenean izan zuten epaiketa bi bergarrek eta horixe da epaia. Epaike-ta berean Antzuolako Kar-men Irizar eta Aretxabaleta-ko Axu Kardenal epaitu zituzten. Antzuolarrari bost urte eta sei hilabeteko zigorra ezarri diote; aretxabale-tarra absolbitu egin dute.

Laurek torturapean emandako informazioa euren aurka erabili izana salatu dute. Baita, fiskalak eskatutako zigorra "gutziz puz-tuta" egotea ere. Honako eskatu zuen: Mikel, Pili eta Axurentzat 9 urte eta Kar-menentzat 20. Baina «datu gutxi eta nahasiak zituen ait-zakiarekin, tratua proposatu zion fiskalak gure aboka-



Mikel Berasategi, Karmen Irizar, Axu Kardenal eta Pili Agirre.

tuari, eta onartu egin dugu». Ondorioz, arestian aipatuta-ko epaia izan zuten.

1998an atxilotu zituzten ustez talde armatuarekin ko-laboratzeagatik. «Bost egu-nean inkomunikatuta eduki

eta torturatuak izan ostean», Carabanchelen espetxeratu zituzten. Han hainbat hilabete eman, fiantzapean kalera-tu eta epaike-taren zain egon dira, «horrek dakarren kontrolarekin».

Feritur turismo azoka astebukaeran

Feritur, Debagoie-neko II. Turismo Azoka, ikusgai izango da aste-buruan Seminarioan, hantxe jarriko duten kapa batean. Mankomunitateak eta Halcon Bidaiak agentziak antolatu dute. Handizkariak eskaintzen dituzten pakete turistikoak eta Deba-goieneko eskaintza tu-ristikoak ikusi ahal izan-go dira. Berritasun nagusienetakoa horixe bera da, alegia, bailara osotasunean hartuko duen eskaintza turistikoaren komertzializazioa. Hama-zazpi erakusmahai inguruk osatuko dute azoka. Ordutegia honako izan-go da: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banataile ofiziala

Berrigara

451 zenbakia.
2001eko maiatzaren 11.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mirreia Larrañaga.
Harpidetzatzailea: Nerea Lazpiur.
Testuaren zuzenketa: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldes.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Juan Martin Elexpuru, Arantzasu Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Ohati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berengarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Hauteskunde kanpaiñan egon da harritsu zaittuen zeozer?



Matias Azkarate

Ez, ez nau ezerk harritsu. Kanpaiña bata bestiarenean aurka jardutia izan da-eta.



Izaskun Gallastegi

Fragaren euskararen inguruko deklaraziñuek atentiñua deitu doste eta hemengo alderdixek eduki dabene tarte txixiak.



Joseba Azkarate

Kanpaiña nazkagarria izan da. Madrileko politikoak, Atilaren estilora, Euskal Herria aldatzia nahi dabe, baiña indarra geuria da.



Asun Lopez de Bergara

Batez be politikuen artian egon dan eztabaidak; edukaziño bariko kanpaiña izan dala uste dot.



Andres Zabaleta


Ez; danek be beti berdiña esaten dabe.



Arantxa Pildain

Egixa esan, kanpaiñari kaso askorik ez jat egitten, ja badakit-eta zer egin bihar doten.

tira biraka bittor rodriguez



adituen esanetan

Zeliakoak

Zeliakoen gorpuzak ez du glutena onartzen. Oloak, gariak, zekaleak eta garagarak duten proteina da glutena. Proteina honek kalte handia eragiten die heste meharrean, eta horrek proteinak, koipeak, karbono hidratoak eta abar behar bezala xurgatzea eragozten die.

Normalean, ez du sintoma deigarrik sortzen gaixotasunak; horregatik, zeliako askok jakin ere ez dakite gaixotasuna dutenik. Hala ere, hesteetako patologia kronikorik ohikoen da: jaiotzen diren 250 umetik bat zeliakoa da. Sintomarik ohikoenak hauek dira: gosea eta pisua galtzea, beherako kronikoa, abdomenaren haztura, gorakoak, anemia... Guzti horrek umea behar bezala haztea eragozten du. Baina, hesteei ez dagozkien bestelako sintomak ere sorrazten ditu, helduen artean, batik bat; hala nola, azaleko alterazioak, osteoporosia, epilepsia, hilerokoa galtzea, behin eta berriro abortoak izatea... Ume bat zeliakoa denaren susmoa izanez gero, heste meharrean biopsia egin behar izaten da.

Gaixotasun hau kronikoa da; beraz, dagoen tratamendu bakarra, bizi guztian glutenik gabeko dieta jarraitzea da.

Janari askok izaten dute glutena; hona hemen zeliakoek jan ezin dituzten produktuetako batzuk: ogia, pastelak, txokolatea, gailetak, pasta italiarra, aurrez



ANTON VALVERDE

Medikua

«Normalean ez du sintoma deigarrik sortzen gaixotasunak; horregatik, askok ez dakite gaixotasuna dutenik ere»

ko Zeliakoen Elkarte); hona hemen telefono zenbakia: 94 41 69 48. Bestalde, Estatuko elkarteak, badu web orri bat ere, gaixotasunari buruzko informazioarekin: www.celiacos.org

egindako janariak, garagardoa, whiskya, hestebete edo enbutidoak... Produkturen bat erosten duen bakoitzean, glutena duen ala ez begiratzea ezinbestekoa du zeliako batek. Bestalde, sei hilabete baino gutxiagoko umei glutenik gabeko janariak eman behar zaizkie. Bularra luzarotan emateak ere gaixotasuna atzeratu eta larritasuna murrizten du. Azkenik, esan behar da badaudela zeliakoen elkarteak, zeliako eta senitartekoei laguntza emateko. Euskadiako, EZE izena du (Euskadi-



Zeliakoek ezin dute garagar, zekale, gari eta olorik kontsumitu.

kaleen izenak



Munibe plaza egiten ari dira.

Xabier Maria Munibe plaza

Plaza hau Bidekurutzeta kalearen eskumaldean dago. San Martin plazatik irtenda, Jauregi eta Zabala-Ondartza (Txantxikuneko denda egon zenekoa) etxeak igaro ondoren aurkituko dugu. Bidekurutzetako hurrengo etxea, berriz, Rocaverde kondearena da. Etxe horren kontra kantoia zegoen Ostaraino.

Xabier Maria Munibe plazaren izena udalak 1982an argitaratutako kale izendegian azaltzen bada ere, orain ari dira plaza konpontzen. Aurretik, askok gogoratuko duzuen moduan, Galarretaneko zapata denda zegoen han. Oraingo konponketekin, ostera, kantoiak han segituko du eta Ibargarai ibilbidean egin dituzten etxe berrietaraino helduko da.

Bergarak plaza bati Xabier Maria Munibe izena jartzeko arrazoa hark gure herriarekin izan zuen lotura azaltzea eta eskertzea izan zen. Munibe jauna Peñafloardako IX. Kondea (1729-1785) izan zen. Azkoitian jaio bazen ere, Bergarara etorri zen bizi izatera 1778an.

Beste batzuekin batera, Euskal Herriko Adiskideen elkarteak sortu zuen, 1764an Bergaran San Martinen omenez egin ziren jaietan. Elkarte horrek ikastetxe aurrerakoa jartzeko asmoa zuen, eta azkenean, Carlos III.ak Bergaran aurretik jesuitak edukitako etxe bat eman zion horretarako, hain famatua izango zen Errege Mintegia hain zuzen ere. Xabier Maria Munibe, ikastetxearen etorkizuna eta lana oso garrantzitsuak zirela pentsatuta, familia osoa hartu eta Bergarara etorri zen. Harrezkero, gure herrian bizi izan zen hil arte.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Argazkia: Bergarako Udaleko Bulego Teknikoak utzia. Egilea: Fran Lete.



AINHOA ARBELAITZ

Eguraldiak ez zuen lagundu Irukurutzetan

Txurumilo taldeak **erromeria** antolatu zuen Irukurutzetan. Baina, eguraldi txarra zela eta, bertan behera laga behar izan zuten erromeria. **Meza** ere ez zuten aurrez ikusitako tokian egiterik izan, eta azkenean, "Aitxan txaboletan" egin behar izan zuten. Hori bai, egun euritsua izan arren, jende mordoxka batu zen, eta meza ondoren **salda eta txorizoa** jateko aukera ere izan zuten. Bestalde, eolikoan aurkako Irukurutzetako kanpaldia ere bertan behera laga zuten.

Azur eta Galanen argazkiak Infernukuan

Azur eta Jose Mari Galanek euren argazkiak ikusgai jarri dituzte Infernukua tabernan. Joan zen egubakoitzean jarri zituzten argazkiak, eta ekaina bitartean hantxe egongo dira, San Juanak arte gutxi gorabehera. Azurrenak Euskal Herriko paisaien argazkiak dira; Galanenak, berriz, abstraktuak dira. Zerbait hartu bitartean, argazkioz gozatzeko aukera paregabea, beraz.



IBARGVREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.



Ibarretxe da baietza




EMAN BOTOA

EUZKO ABERTZALEAK



JANTZIDENDAK ETA KIROLDENDAK


Bergara Piel. Espaloia 6
Cristina. Arruriaga 44
Gallastegi. San Pedro 15
Ikus-Bi. Irala 5
Jauja kirolenda. Irizar 3
Laket. Barrenkalea 35
Mujika jostundegia. San Martin plaza
Subijai. Irizar 1
Zatoia. Barrenkalea 4
Zubikua. Barrenkalea 24




HARATEGIAK

Igarza J.J. Irizar 3
Imaz S. Aranerreka 1
Leturia I. Zubiaurre 23
Leturia J.L. Artekalea 5
Leturia J.M. San Pedro 24
Rezola L.M. Matxiategi 7
Urzelai P. Ibargarai 7

ZERBITZUAK




Barcelo bidaiak. Zurradero 4
Carasa, Cilveti, Lacort y Cia. aseguroak.
Fleming doktorea 3
Cinebank Bergara. Ibargarai 6
Grupo A4 aholkularitza. Artekalea 16
Lagun Aro. Belanbide kalea
TGB aholkularitza. Matxiategi 36
Zurich. Barrenkalea 44



OSTALARITZA

Agirrebeña. Ibarra 2
Antxoni. Fraiskozuri 4
Arrano. Kruz Gallastegi 5
Azpeitxi. Aranerreka 13
Canalejas. San Antonio 6
La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23
Deportivo. Bidekurutzeta 3
Erreki. Fraiskozuri 3
Euskalduna. Osintxu
Ganbara. D. Irala z/g
Gaspar. Barrenkalea 31
Guria. Bidekurutzeta 5
Infernukua. Masterreka 23
Larrañaga banatzailea. Martoko 3
Lasa. Ozaeta jauregia
Maxim's. Simon Arrieta 5
Miner banatzailea. Matxiategi 23
Nahikari. Masterreka 20
Pol-Pol. Komenio kalea 11
Sirimiri. Barrenkalea 3
Tartufo. San Juan auzoa z/g
Torrekua erretegia. Ibargarai 37
Txuringo. Osintxu 14
Zabala. Ibarra 14
Zer-Nai. Telesforo Aranzadi 4
Ziripot. Bidekurutzeta 11
Zumelaga. San Antonio 5


Tratu zuzenago konfidantza eta Bergara, zure int



OIHALAK

Anezka. Espoloia 8
Artazi. Katabia z/g
Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
Fernandez. Ibargarai 2
Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3
Maher. Bidekurutzeta 29

JANARIDENDAK



Erosle Mazorriaga. San Pedro 21
Goxo-Toki gozotegia. Irala 3
Hurbil dietetika. Aranzadi 2
Itxas Eder arraindegia. Mintegia 5
Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
Laskurain janaridenda. Artekalea 4
Mari Karmen arraindegia. Kruz Gallastegi
Mujika gozotegia. Artekalea 3
Txukun. Fraiskozuri 6
Zapaterikua janaridenda. Joan XXIII.a plaza.

B E D I
BERGARAKO DENDAK
OSTALARITZA

BURDINDEGIAK- BRIKOLAKETA DREK ETA PENTSUAK

Arantz brikolaketa. Masterreka 4
Gelu burdindegia. Mintegi 1
Gela burdindegia. San Pedro 8
Lore loredegia. Barrenkalea 28
Mig burdindegia. Bidekurutzeta 8
Naiza pentsuak. Masterreka 22



ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6
Herran. Matxiategi 3
Jakina. Amillaga 10
Radio Bergara. San Pedro 25
Santos RTV. Masterreka 2
Telkar. Ibargarai 2
Zaiazko. Aranzadi 3

OPTIKAK- BITXITEGIAK- ARGAZKIAK

Arantza bitxitegia. Barrenkalea 4
Argazki. Barrenkalea 16
Etxeberria bitxitegia. Bidekurutzeta 16
Kiñu. Barrenkalea 35
Manso optika. Irizar 2



PAPERDENDAK- TINDATEGIAK- BESTE

Elkar fotokopiadenda. Arruriaga 1
Ikasle. Fleming doktorea 11
Jolas. Barrenkalea 27
Marcó. Bidekurutzeta 44
Onena tindategia. Barrenkalea 29
Renteri tindategia. Ikerleku 4

ga, segurtasuna,
bertuan dauzkazu!
entru komertziala



MERTZERIAK- LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
Igarza. Irala 5
Itziar. Matxiategi 1
Juana elgetarra. Zubieta 28
Mirari. Martoko 32
Nerea. Simon Arrieta 1
Phildar. Irala 5

PERFUMERIAK

Amaia. Barrenkalea 25
Camacho. Bidekurutzeta 24
Egiluz. Irizar 3
Gojara. Irala 3
Igaro. Barrenkalea 35

ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin plaza 2
Edertu. Barrenkalea 23
Guridi. Artekalea 8
Rementeria. Artekalea 6
Kanela. Espoloia 10

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5
Aldasoro. Espoloia 4
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
Egizabal. Bidekurutzeta 13
Galarreta. Irizar 2
Garnish. San Pedro 12
Lazkano. Barrenkalea 15
Lonbide. Bidekurutzeta 5
Retegi. San Pedro 18
Yoar. Barrenkalea 9

MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

hezkuntzaren erdigunea **ZU** zara



m **MONDRAGON**
UNIBERTSITATEA

HITZALDIA

ZERGATIK IKASI
MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

M.U.ko Errektorea den Javier Retegi Jaunaren eskutik

"Mendeberri"
heziketa proiektua

Unibertsitate Kanpus
kontzeptu berria

Gizarte eraldaketa
eta eskualde garapena

Javier Retegi Jaunak, zentruetako zuzendari eta orientatzaileei eta irakaskuntza ertainetako ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldia eskeiniko du. Gazteak etorkizunari begira orientatzeko gomendioak emango ditu, M.U.k eginkizun hau nola betetzen duen azalduz. Era berean, unibertsitatearen hezkuntza eskaintza aurkeztuko du.

ARRASATE

Biteri Ikastetxe Nagusia
(Goi Eskola Politeknikoa)

Maiatzaren 15a,
asteartea,
18:30ean

www.muni.es
Tel. 943 71 21 85

Maria Jesusek orain dala hamasei urtetik dauka Urriategi estankua San Lorentzon. 61 urte dauzka eta ezkondu da dago; hiru seme-alaba dauzka eta bi biloba; hirugarrena be bidian ei dator.

Maria Jesus Urriategi

Asko erretzen dau jendiak?

Tabakuan preziaua igo arren, berdin erretzen dau jendiak. Bestalde, hau auzoko estanku bat da, eta betiko jendia etortzen da.

Zer da zure lanian gehixen gustatzen jatzuna?

Jendiakin egotia.

Eta gutxien?

Bateren batzuri aguantau biharra. Beste batzutan neu izango naiz aspergarrixa...

Denpora librian, zer egittia gustatzen jatzu?

Mendixa; forofia naiz. Ibilliko nintzake ez dakit zenbat orduan. Orain dala urte batzuk Santiagoko bidia be egin giñuan.

Euskal Herriko ze mendi gustatzen jatzu?

Aralar, San Donato, Urbia..., dana gustatzen jat.

Telebista, irratixa ala egunkarixa?

Danetik pixka bat; eguerdixan irratixa entzuten dot; telebistan, *Goenkale* eta albistegixak; eta, egunkarixari eguneroko gittin jat bistazo bat.

Hauteskunde kanpainia jarraitu dozu?

Ez; argi daukat-eta zer egin bihar doten; gaiñera, sutan jartzen nabe esaten dittuen disparatiek.

Bizitzeko toki bat?

Bergara oso leku ona da bizitzeko.

Eta oporretarako?

Pirinio eta Andorra aldia eta hemengo eta Mediterraneoko hondartzak gustatzen jat.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Genixua daukat, prontua, baiña segittuan pasatzen jat; bestetik, oso pertsona optimistia naizela uste dot.

Zerk jartzen zaittu haserre?

Batzutan neure buruakin egoten naiz haserre, eta edozer gauzakin haserretzen naiz.

Eta pozez saltoka?

Bilobekin, mendixan nagonian be oso pozik sentitzen naiz..., egixa esan, eguneroko gauza txikixek jartzen nabe pozik.

Nahikua diru eduki ezkerro zer egingo ziñuke?

Antzerako bizimoduakin jarraituko neuke... Bidaia gehixago egingo neuke, eta ingurukuei lagundu.

Urtaro bat?

Udabarrixa; udazkena be oso politta da mendixan ibiltzeko.

Kolore bat?

Beltza, urdiña, marroia...kolore klasikuak.

Liburu bat?

Asko irakurtzen dot, ez neuke jakingo bat esaten.

Amets bat?

Bakia; danok ondo konpontzia. Eta bestetik, gosiakin eta ume askoren egoera penagarrixakin bukatzia nahiko nuke.



*Gozogintzan
aitzindari.*

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

etxalar

kafetegia kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

Bergarako Udala



Bergarako Udala lehia-
keta-oposizio bidez
Enplegu
Dinamizatzailea
aldibaterako lan kontratuz
kontratatzera doa.

Lehiakideen baldintzak

- Erdi mailako titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea, 4. hizkuntza eskakizunari dagokion maila, derrigorrezkoa.

Instantziak

Instantziak aurkezteko epea
2001eko maiatzaren 14an, 13:30ean
bukatuko da.

Oinarriak

2001eko maiatzaren 2ko Gipuzkoako
Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.
Udaletxeko idazkaritza bulegoetan ere
jaso daitezke.

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak eta heldulekuak
Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea
☎ 943 76 18 93



Brigada

Herria konpondu eta mantentzeaz arduratzen den udaleko lan-taldea

Hogeita zazpi lagun ari dira udaleko brigadan lanean, eta Iñaki San Jose dute buru. Bera arduratzen da lan guztiak koordinatzeaz eta udalarekin harremanak izateaz. Denetik egiten dute: eserlekuak margotu, argiteria jarri, lorategiak apaindu eta zaindu, ur azpiegiturak... Bi lan mota egiten dituzte, San Josek azaldu digun moduan: batetik, lan berriak egin; eta bestetik, daudenak mantendu edota konpondu.

Egunero ikusten ditugu: farolak edota ur hodiak konpontzen, kaleko errepideak margotzen, lorategiak apaintzen... Bergarako Udaleko lan eta zerbitzuetako brigadakoak dira, herritarren artean, brigadillakoak bezala ezagunagoak.

hiru lagun ari dira. Kaleko farolak jarri eta konpontzeaz gain, udaleko egoitza-tako argindarrak ere arduratzen dira. Baita semafoeren funtzionamenduz ere. Igeltserotza lanak ere egiten ditu beste brigada batek, eta zazpi lagunek

osetzen dute talde hori. Bestetik, errepide mantentzeaz arduratzen den talde bat ere badago. Hiru lagun aritzen dira kaleko seinaleak jarri, errepidea margotu, zakarrontzi berriak jarri eta errepideetan sortzen diren zuloak konpontzen,

besteak beste.

Azkenik, lorezainen taldea dago; bederatzi lagunek dihardute brigada horretan lanean. Horrek erakusten du zelako garrantzia hartzen ari diren berdeguneak gure herrian. Gero eta gehiago daude, eta lehendik zeudenak ere gero eta hobeto zaintzen dituzte udaleko langileek.

BOST BRIGADA

Lan horiek guztiak egiteko bost taldetan antolatuta dago lan eta zerbitzuen brigada, eta talde bakoitzak, gainera, bere arduraduna dauka. Ur zerbitzuan bost lagunek lan egiten dute. Euren lana da ur hoditerien azpiegitura jarri eta mantentzea. Hodiren bat apurtu edo garbitu beharra baldin badago ere, eurak arduratzen dira. Argiteriaz arduratzen den taldean, berriz,



Udal biltegian hasten eta amaitzen dute laneguna brigadakoek

BILTEGIA, BRIGADAREN LANTOKIA

Han eta hemen ibiltzen dira lanean brigadako langileak; kalea izan ohi da euren lantokia. Baina, era berean, badute lan-gune bat: udal biltegia, hain zuzen ere. Biltegian hasten dute laneguna: hantxe fitxatzen dute, eta hantxe jantzen dituzte lanerako



Ezkerreko orrialdean, lorezainak, eta argiteria eta igeltsaritza zerbitzuakoak. Aldamenean, errepide eta bestelako zerbitzuetakoak, hauteskundeetarako materiala prestatzen. Goian, igeltseroak espaloia konpontzen.

arropak ere. Brigada bakoitzak bere lanerako beharrezko duen materiala ere, biltegi horretantxe gordetzen dute: lorezainen lanabesak, elektrikarietak, kotxeak...

Brigaden koordinatzaile den Iñaki San Josek ere udal biltegian du bere bulegoa. Brigada guztien lana koordinatzeaz gain, bera da udalarekin harremana duena ere. Zerbitzu eta lanen brigada Gobernazio batzordearen ardura da. Iñaki San Josek Gobernazioari aurrekontu eta gastu proposamenak aurkezten dizkio. Behin onartutakoan, erosketak egiteaz ere, brigadakoak arduratzen dira.

KEXAK ENTZUTEA ERE BRIGADAKOEN LANA DA

Iñaki San Joseren esanetan, herria txukun mantentzea eta herriko azpiegiturak behar bezala egotea da euren lana. Horregatik, kexa ugari jaso behar izaten dute. Jende askok deitzen ei die biltegi-
ra, baina sarritan, baita etxera ere. Iñakiri berari askotan deitu ei diote etxera, edo kalean geratu, kexaren bat azaltzeko. Bere esanetan,

"normala da, gure lana baita, herrian gaizki dagoena konpontzea, eta herria txukun mantentzea". Eta horixe egin behar omen dugu herritarrok. Egoera txarrean dagoenaren berri eman. Hala ere, lanaren alde ez hain ona horixe bera omen da. Lan orduetatik kanpo ere lanean egotea, izan ere, kexak jasotzeaz aparte, "esaterako, hodiren bat apurtu edo zuhaitzen bat erortzea tokatzen baldin bada, nahiz eta goizeko ordu txikiak izan, joan eta arazoa konpontzea baita gure lana", diosku Iñakik.

Dena dela, "lan guztiak bezalako-
xe da: bere alde onak eta txarrak

dauzka", gaineratu du. Alde onena eguneroko lan ezberdin bat egitea tokatzen zaiela da Iñakiren ustez; horregatik, ez da lan monotonoa, beste lan asko bezala. Baina, bestetik, kalean lan egin beharrak baditu bere alde txarrak; izan ere, eguzkia, euria edota sekulako haizea egin, kalean lan egin behar izaten dute, eta hori ez da oso atsegina izaten.

HAUTESKUNDEETAN ERE, LANERA

Orduan ere lan egitea tokatzen zaie brigadakoei. Kanpaina hasterako, prest egon behar izaten dute alderdien publizitaterako panelek, eta hauteskunde ostean, berriro denak batu eta biltegian gordetzen dituzte. Aurten, esate baterako, 72 metro lineal panel jarri dituzte guztira Bergaran. Hauteskunde aurreko egubakoitzean, kabinak jartzen dituzte eskoletan. Domekan, berriz, hauteskontziak garbitu eta prezintatu ondoren, goizeko seiak aldera eskolara eramaten dituzte, boto-txartelekin batera. Beraz, astebukaera honetan ere izango dute zeregina brigadakoek.<

**Lan eta zerbitzuen brigadan
hogeita zazpi lagunek dihardute
lanean, bost taldetan banatuta**

**Hauteskundeetan ere hainbat lan
egiten dute: panelak jarri,
hauteskontziak eskoletara eroan...**

Bergara futbol taldeak agur esan dio hirugarren mailari

Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak preferente mailan jokatu du datorren denboraldian. Azken jardunaldian Baskoniaren aurka galdu ondoren, kategoriari eusteko aukera guztiak agortu dituzte mahoneroek. Hortaz, liga amaitzeko, balio handirik gabeko partidua jokatu du Bergarak domekan, Agorrosinen, Zamudioren aurka, 18:00etan.



Bergarak bi denboraldi eman ditu 3. mailan.

Jokalariak banan-banan

	JOKATUAK	TITULARRA	MINUTUAK	TXARTELAK	GOLA
ATEZAINAK					
Markel Egaña	35	35	3.150	-	-58
Arkaitz Gainzarain	2	2	180	-	-1
ATZELARIAK					
Txonan Gallastegi	20	19	1.621	6h	-
Unai "Txara"	7	5	535	2h	-
Aritz Arabiourrutia	34	34	3.031	11h1g	5(3p)
Ander Berraondo	28	28	2.463	5h1g	1
Asier Rodriguez	31	30	2.634	8h	-
Mikel Osoro	16	12	1.195	5h	-
Etor Laskurain	21	20	1.765	3h1g	-
Luis Blanco	8	1	225	-	-
Xabier Lete	2	2	108	-	-
Oier Loiola	11	9	860	7h1g	1
ERDILARIAK					
Arkaitz Arana	35	31	2.829	9h1g	1
Josexo Lizarralde	34	33	3.750	9h	5
Jokin Mendiartz	12	12	1.042	3h	-
Unai Rollan	8	6	478	-	1
Oskar Maiztegi	22	18	1.550	1h	1
Mikel Altuna	3	3	240	1h	-
Koldo Erostarbe	33	30	2.743	12h1g	2
Gorka San Vicente	33	27	2.007	8h1g	-
Unai Arana	1	0	25	-	1
AURRELARIAK					
Paco Santiago	24	14	2.135	10h1g	2
Igor Errasti	34	32	2.851	2h	10
Joseba Duran	4	1	65	-	-
Igor Larrañaga	9	0	160	1h	-
Igor Alberdi	14	4	353	2h	1
Iñigo Iriarte	13	0	316	1h	-

Hirugarren mailan jarraitzeko, beharrezkoa zen Bergarak Baskoniari eta Zamudiori irabazi eta, era berean, San Pedrok edo Sodupek euren partiduetan kale egitea. Bergarak 2-0 galdu zuen zapatuan Basaurin eta Sodupek eta San Pedrok, berriz, aurrera atera zituzten euren partidua astebukearan. Guzak horrela, liga amaitzeko jardunaldi bat geratzen dela, Bergarak ez dauka mailari eusteko inolako aukerarik, sailkapeneko azkenurreko tokian dagoelako, 38 punturekin. Bergararekin batera, Lagun Onak (28 puntu) eta Hernani (39) jaitsiko dira preferente mailara, talde gipuzkoarrak hirurak ere. Sodupek 42 puntu ditu eta ondo-

rengok 44na puntu dituzte.

Lehen itzulera Bergara ondo aritu bazen ere, bigarren itzulera lau partidu besterik ez du irabazi. Gainerakoak galdu egin ditu. Hain zuzen ere, berdinketa gutxien lortu duen taldea da Bergara: bost berdinketa guztira, denak ere lehen itzulera lortutakoak. Bigarren itzulera 7. jardunaldia ezkerer bederatz partidu jarraian galdu zituen taldeak, apirilaren 21ean Durangori irabazi zion arte (3-1). Bigarren itzulera eskasa erabakigarria izan da hirugarren mailari agur esateko.

Domekan, ligako azken partidua jokatu dute, Zamudioren aurka. Zamudiok 2.B mailarako igoera lortzeko aukera du oraindik.

GARAIAK JARRAITUKO DU

Hortaz, 2002an taldearen sorreraren 50. urteurrenarekin bat eginez, Bergara preferente mailan arituko da hurrengo denboraldian, hirugarren maila berreskuratzen asmoz. "Piti" Unamuno taldeko presidentearen arabera, Juanina Garaik entrenatzaile segituko du eta ahalegin guztiak egingo dituzte taldean baja esanguratsurik ez izateko. Hala ere, Errasti golegileak futbola lagatzeko asmoa azaldu du.

PANA DEROKUA
GATEIXEAL

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Senior saskibaloia taldea bigarren mailara jaitsi da

Zapatuan Goierri 67-62 irabazi arren, BKEko senior mutilen saskibaloia taldeak ezin izan dio mailari eutsi eta Gipuzkoako bigarren mailan jokatu du hurrengo denboraldian. Alex Familiarrek zuzentzen duen taldea sailkapeneko azkenaurreko tokian da: 19 partidua galdu eta sei besterik ez du irabazi. Astebukaeraren bigarren mailan ligako azken partidua jokatu du Oartzunen, hango taldearen aurka.



Argazkian, mailaz jaitsi den senior taldea.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Hondarribia
Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 16:30. Ipintza
Bergara-Zumaiaiko
Lehen mailako gazteak
Zapatua. 18:00. Ipintza
Bergara-Beasain
Ohorezko mailako gazteak
Domeka. 11:00. Ipintza
Bergara-Zamudio
Hirugarren maila
Domeka. 18:00. Agorrosin

ESKUBALOA

Bergara-Legazpia
Senior mutilak
Egubakoitzea. 20:45. Kiroldegia

PILOTA

Bergara Hiria Txapelketa
Martitzenean,
Udal Pilotalekuan, 19:30ean

GIMNASIA ERRITMIKOA

Herri arteko txapelketa
Zapatuan, goiz eta arratsaldean,
Kiroldegian

IKER AZAGIRRE / Pilotaria, Deba arroko gazte mailako txapelduna

"Aurrean jokatzean, errematatzea gustatzen zait gehien"

Iker Azagirre pilotari bergararrak (16 urte) Deba arroko txapelketa irabazi zuen, gazte mailan, Soraluze taldeko Jauregirekin bikotea osatuz. Era berean, Intxaurrendoko txapelketa irabazi du orain gutxi, Beasaingo Iru-retarekin batera.

G. Azkenaldian irabazitako bi txapelketa-tik zeinek egin dizu ilusio gehien?

E. Intxaurrendokoak, duda barik. Gorbida-pena jaso behar da han jokatzeko, eta maila handiagoa zegoen. Dena dela, Deba arroko txapelak ere garrantzia du.

G. Deba arroko txapelketan Soraluzeko taldearekin jokatu duzu.

E. Orain dela hiru urte hasi nintzen Sora-

luzen, Txurruka entrenatzailearekin, eta gustura ari naiz. Txapelketa ona egin dugu eta partidua bakarra galduta dugu ligaxkan, hain justu ere finala jokatu genuen Eibarko bikotearen aurka. Finala ere nahiko parekatua izan zen, partidua erdialdetik aurrera batez ere.

G. Zeintzuk dira zure bertuteak?

E. Zaila da nik esatea. Aurrean



jokatzeko dut eta errematatzea gustatzen zait, eskumarekin zein ezkerrekin.

G. Orain, zer txapelketa jokatu duzu?

E. Gasteizko Zaramagako txapelketa jokatzeko ari naiz eta zapatuan Añorgakoa hasiko da. Bestalde, uda partean Getariako lau t'erdiko txapelketan parte hartuko dut.

G. Binaka ala banaka?

E. Buruz buru nahiago.


G. Nork irabaziko du eskuz banakako txapelketa?

E. Barriola sasoiko ikusten dut eta finalera hel daiteke. Finalean ere lanak emango lizkioke Eugiri, sasoi betean dago eta.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



Masterreka 19, beheka. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA

Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.

Antsietatea, stressa, tabakoa,
depresioak, gizentasuna

Tratamendu personalizatuak
eta ondorio gabeak.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

LIGAKO KANPORAKETAK

Ortzi-Errotagain	0-7
Amilox-A Ze Flaxa	0-3
Pagomendi-Bildurbarek	3-6
Alum. Kresala-Canalejas	1-2
Kanpazar-Guadalest	3-1

KOPA KANPORAKETAK

Bayer-Artusamak	4-1
Bar Ugarte-Komando Piperrak	8-5
Ortzi-Txipiron	5-4
Errotagain-Mongatxurak	5-3
Bayer-Amoskibar	4-1
Fac-Patxaran Team	5-1
Bildurbarek-Eri	2-4
Cine Bank Irimo-Etengabe	3-3

(penaltietan C.B. Irimo sailkatu zen)

DOMEKAN, BARRUAN

KOPA

16:00: Errotagain-Fac	Bar Ugarte
17:00: Aluminios Kresala-Bar Ugarte	Ortzi
18:00: Eri-Ortzi	Amoskibar
20:00: Kanpazar-A Ze Flaxa	Mongatxur.

LIGAKO PLAY-OFFA

19:00: Mongatxurak-Amoskibar	A Ze Flaxa
------------------------------	------------



ARGI!

Ligan eta kopan

Errotagain, Bar Ugarte eta Bayerrek kopan zein ligan aurrera jarraitzen dute. Bayerrek Artusamak, Amoskibar eta Canalejas taldeak kanporatu ditu eta sasoi beteanean dagoela dirudi. Bar Ugarte, A multzoko liderra, indartsu dago eta Errotagainek Mongatxurrak eta Ortzi irabazi zien astebukaeran.

Domekan bakarrik

Oraingo astebukaeran domeka arratsaldean jokatuko dituzte partiduak. Kanpazar eta A Ze Flaxaren artekoa ikusgarria izan daiteke.

Ortzi eta Bildurbarek Opel Lam

Kopan aurrera egin arren, ligako play-offean 0-7 galdu zuen Ortzi Errotagainen aurka. Bildurbarek, ia zoko kopako txapelduna, Eri taldeak kanporatu zuen (2-4)

mahoneroak



"PITI" UNAMUNO
BKEko presidentea

Bigarren itzulian ikusita-koaren arabera, espero zitekeen taldea preferentera jaitea, baina gogorra egin zaigu. Lehen itzulera taldea primeran ibili zen: 24 puntu lortu zituen eta mailari eusteko arazorik ez genuela izango uste genuen. Baina futboleant askotan aipatzen da talde hau edo beste hori dinamika txar batean sartu dela eta guri beharbada hori gertatu zaigu, bolada oso txarra izan dugula bigarren itzulera, eta ezinezkoa gertatu zaigula hortik ateratzea. Hala ere, taldeak duen guztia eman du eta alde horretatik ez daukat kezarik. Era berean, gure jarraitzaileei eskerrak eman nahi dizkiet, emandako laguntzagatik.

Zapatuan, entrenatzaileak komentatu didanez, bigarren itzulera gaitza errepikatu zen, ate aurrean ez genuela asmatu, alegia. Azkenean, Baskoniak egin zituen golak, eta ez genuen gure helburua lortzerik izan. Ea datorren urtean hirugarren mailara bueltatzen garen: horretarako guztion laguntza beharko dugu.

Cine Bank Irimo eta Txipiron

B multzoko bi azkenak aurrez aurre izan ziren kopan; C. B. Irimo nagusitu zen penaltietan. Ortzi lan handia egin behar izan zuen Txipironi irabazteko.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	54	22
2. Errotagain	52	22
3. Bildurbarek Opel Lam	43	22
4. Amoskibar	39	22
5. Pagomendi	34	22
6. Bar Canalejas	32	22
7. Fac	27	22
8. Eri	22	22
9. Iribide jatetxea	18	22
10. Torrekua	7	22
11. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Ortzi	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	19
3. Bayer	32	19
4. Amilox	31	19
5. Aluminios Kresala	30	19
6. Agirrebeña jatetxea	18	19
7. Vacalouras	15	19
8. Cine Bank Irimo	11	19
9. Etengabe	4	19

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	39	17
2. Artusamak	37	17
3. Mongatxurak	36	17
4. Guadalest	27	17
5. Komando Piperrak	25	17
6. Shaktale	17	17
7. Txipiron	16	17
8. Patxaran Team	8	17

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Arkaitz Arana	13 puntu
Ander Berraondo	11 puntu
Josetxo Lizarralde	11 puntu
Aritz Arabiourrutia	10 puntu

Etoko partiduak bakarrik hartzen ditugu kontuan.

Pentekoste Jaiak Salou 2001

Ekainaren 1etik 5era

Autobus gabe

Belvedere.....	16.850
Playa Park.....	16.850
Port salou.....	16.850
Michelangelo.....	19.800
Europa Park.....	19.150
Mediterraneo.....	16.100
San Francisco.....	15.000
Los Angeles.....	14.200
Augustus.....	19.000
California Gardens.....	17.700
Salou pacific.....	18.650

Autobusarekin

Belvedere.....	24.100
Playa Park.....	24.100
Port salou.....	24.100
Michelangelo.....	27.050
Europa Park.....	26.400
Mediterraneo.....	23.350
San Francisco.....	22.250
Los Angeles.....	21.450
Augustus.....	26.250
California Gardens.....	24.950
Salou pacific.....	25.900

Luxuzko bi autobus. Irteerak: 17.00etan eta 20.00etan

- Gidari laguntzailea • Asistentzia eta bidaia aseguru
- Egonaldia **ekainaren 9ra**, larunbata, luzatzeko aukera dago
 - Ume bat doan eta bigarrenak deskontua
 - Hirugarren eta laugarren pertsonendako deskontua

AUTOBUSA ASTERO SALOURA BERGARATIK




UNIVERSAL STUDIOS
PORT AVENTURA™

Eta gainera...

PORT AVENTURA

2 egun egon eta bakarria ordaindu



INFORMAZIOA ETA ERRESERBA

Irizar, 1

Tel.: 943 76 26 76 eta 943 76 12 67

Idoia eta Karmentxu



VIAJES EROSKI
B I D A I A K

► Prezio Onak baino gehiago





MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Zein da irudian ikusten den Basalgoko baserri honen izena?

galde debalde

1. Zenbat bergarrek izango du botoa emateko aukera maiatzaren 13an?


- A- 12.736
- B- 12.536
- C- 12.730

2. Zenbat taldek osatzen dute Udaleko Zerbitzu eta Lan Brigada?

- A- Hogeita zazpi
- B- Bostek
- C- Bik

3. Non galdu zuen Bergarako futbol taldeak joan zen astebukaeran?

- A- Azpeitin
- B- Basaurin
- C- Zamudion



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Miren Zaloñarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Mireni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **harraska bezala, lisibatu eta harrian jotzeko**

Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Leader price
olo-xanpua, 750 ml.
169 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Alex Muela, Cool Panic taldeko kidea

«Oso bitxia da Saffety Pin disko etxe ezagunak gugan interesa agertu izana»

Alex Muela, Itziar Iturbe, Aitor Pedrejon eta Iker Narvaezek osatzen dute Cool Panic taldea. Datorren hilean, *Made of stone* diskoa kaleratuko dute Saffety Pin disko etxearekin.



Muela (gitarra eta ahotsa), Cool Panic taldeko kidea.

G. Diskoa grabatu duzue dagoeneko.

E. Bai, joan den asteburuan. Aurretiaz, Jorge Rebo-redorekin maketa grabatu genuen. Zazpi kantu zituen, eta hainbat disko etxetara bidali genuen. Bik interesa agertu zuten: Galiziako batek eta Madrilgo Saffety Pin-ek. Lehenengoaren baldintzak ez zitzaizkigun gustatu eta Saffety Pin-ekoenak, aldiz, bai. Kike Turmix gurekin harremanetan jarri zen, eta aurrera egin genuen. Horrela, asteburuan, bost kantu grabatu ditugu. Horiekin eta maketako beste

laurekin diskoa osatu dugu.

Diskoan asko nabari da taldearen garapena. Maketan baino doinu zehatzagoa daukagu, gainera, hura estudio batean sartzen ginen lehen aldia zen, bateria ere aldatu genuen...

G. Saffety Pin disko etxe garrantzitsua da.

E. Bai, eta zorte handia izan dugu. Estatutik kanpo-

ko taldeekin egiten du lan. Estatuan The Hot Dogs-ekin bakarrik atera du diskoa. Oso bitxia da estatuko beste batekin hastea, gurekin, gainera, hasiberriak izanda.

G. Diskoa noiz egongo da kalean?

E. Seguruenik, Pazkoetarako, fabrikari dago eta. Promozioaz Kike Turmix arduratuko da, eta oso ona

izango da. Banaketaz Zabal-tzen arduratuko da.

G. Disko etxeak baldintzarik jarri dizue?

E. Oraindik ez dugu kontratua sinatu. Orain arteko kostuez eurak arduratu dira. Baina guri jarriko dizkiguten baldintzak ez dakizkigu oraindik.

G. Pozik zaudete?

E. Oso. Ez genuen uste hona helduko ginenik, eta are gutxiago Saffety Pin-ekin grabatzea.

G. Helburua?

E. Etorriko denaz ez dugu gehiegi pentsatzen. Unean unekoaz pentsatzen dugu. Diskoa, antza, gustatu egin zaie eta aurrera egin dugu horrekin.

G. Ingelesez abesten duzue.

E. Ahotsa instrumentu bat besterik ez da, eta guk musika ingelesez sentitzen dugu.

Umeendako jolasleku ibiltaria antolatu du Jardun elkarteak

Iaz antolatu zuen estreinako jolasleku ibiltaria. Izandako harrera ona ikusita, aurrean ere lehen hezkuntzako umeak kontuan hartu eta jolasleku ibiltaria antolatu du.

Helburua da jolas eta abestien bidez umeei euskaraz jolasteko tresnak eskaintzea, eta baita, bide batez, lehenengo eta oraingo jolas eta abestiak irakastea ere.

Jolaslekua ibiltaria izanik, herriko hiru txokotan egingo da, hiru egubakoitzetan. Lehenengoa, maiatzaren 18an, Espoioian. Bigarrena, maiatzaren 25ean, Fraiskozurin, eta hirugarre-

na, ekainaren 15ean, Usondo parkean.

Guztiak 17:00etatik aurrera izango dira. Bestalde, jolas guztiak Jarduneko bost begiralek dinamizatuko dituzte.

Mujika
geologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera komisioa: %0,25.
35 urte bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03



San Martin ikastolako ikasleak, 1975

San Martin ikastolako ikasleek 1975eko ekainean Asturias eta Kantabriara ikas-bidaia egin zute-neko argazkia da goikoa. Maria Victoria Arizmendi, Blanca Narbaiza eta Jose Mari Elorza irakasleen laguntzaz, orduan OHoko 8. mailan ari ziren ikasleek lau egun eman zituzten bidaian eta, besteak beste, Potes, Picos de Europa, Castro Urdiales edo Santander bisitatu zituzten. Ikasleek 14-16 urte bitartean izango zituzten orduan. Honako

hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Goian: Jénaro Larrañaga, Ibon Linazisoro, Blanca Narbaiza, Jose Mari Elorza, Maria Victoria Arizmendi (atzean), Argiñe Sagastume, Miren Gurutze Arana (erdi makurtuta), Jaione Osoro (Elgetakoa, atzerago), Maria Pilar Albisua (erdi makurtuta), Pili Olertza (Maria Pilarren atzean), Gloria Roca, Begoña Arzelus, Jose Jabier Urbistondo eta Luis Miguel Sarobe.

Makurtuta: Jose Migel Sagastume, Sorkunde Arrieta, Felix Alzelai, German Ibarra, Eva Agirre, Xabier Pardina, Enrike Ape-rribai, Josean Iza, Jose Ramon Lasa, Mari Karmen (Elgetakoa), losu Mujika (atzerago), Edurne (Elgetakoa), Mikel Agirregabiria (aurrean), Ane (Elgetakoa), Manolo Arregi eta Fede Mujika.

Argazkia: Begoña Arzelus

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



MUJIK FERRETERIA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA


Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria



BOZKATU



UNITED COLORS
OF BENETTON.



Maalako Errabala, 13 • ARRASATE

Ram